

AZKOITIA

ESKOLAKO AGENDA 2030

2024-2025 ikasturtea



MUGIKORTASUN JASANGARRIA



22. URTEURRENA!

11 HIRI ETA KOMUNITATE IRAUNKORRAK



2024-2025 ikasturtean, Eskolako Agenda 2030 programaren lanketan bi urteko ziklo berri batekin abiatu gara, herriko MUGIKORTASUN JASANGARRIA aztertuz. Gaia 11. Garapen Jasangarrirako Helburuaren barne dago.

Programaren partaideak Azkoitiko bost ikastetxeak izan gara: Azkoitia BHI, Bizilore Eskola Aktiboa, Floreaga ikastetxea, Izarraitz LHII eta Xabier Munibe ikastola.



MUGI, MUGI!



Herrian guztiok daukagu mugitzeko beharra. Batzuetan oinez, bestetan autobusez, bizikletaz edota autoz. Horren arabera, kutsadura gehiago edo gutxiago sortuko dugu, bai arnasten dugun airea kutsatuz, baita zarata ateraz ere!

Udalaren Mugikortasun Plan berriaren sorrerarekin bat egin dugu, gure etxeetara diagnostikoa burutzeko galdetegiak eramanez.

Eta ugariak izan dira bildutako erantzunak!



NOLA GOAZ ESKOLARA?

Bakoitzaren etxetik eskolara doan bidea aztertu dugu. Gurasoekin hitz eginez, jakin dugu beraiek orokorrean oinez joaten zirela eskolara.



BUELTAKA HERRIAN ZE HAR

Kalera irten eta bi ikerketa burutu ditugu.
Batetik, kaleetako egoera aztertu dugu
eta bestetik jendearen portaera.


Kale behaketa

Kalera irten eta behaketa lana
burutu genuen, aurkitutako oztopoak
zerrendatuz. Taldetxo bat, ibiltzeko
zailtasun handiena
dutenen azalean jarri
gara: gorpildun aukietan
eserita, makuluekin,
itsuak izango bagina
bezala begiak itxita...



Herritarron portaera

Batetik, herriko udaltzainekin
elkartu ginen kalean dauden
arazoak hitz egiteko. Bestetik,
kalean gaizki aparkatutako ibilgailuei isunak
jarri genizkien. Eta azkenik, herritarren artean
galdetegi bat pasa genien beraien ohiturak
ezagutzeko.



Ondorio garrantzitsuenak:

- Gurpildun aulkietan eta haur kotxeekin herritik mugitzeko zailtasunak daude: koska asko, espaloiak egoera kaskarrean, estuak, puskatutako baldosak, zuloak... Plaza Berriko espaloia bereziki oso egoera txarrean dago.
- Zebra-bideen pintura gastatuta dago leku askotan.
- Itsuentzako kaleak hobeto egokitu beharko lirateke.
- Autoak lehen baino gehiago partekatzen dira baina oraindik asko hobetu daiteke.
- Lantokira eta erosketak egitera joateko gehienetan kotxea erabiltzen da.
- Zebra-bide batzuetan kotxeak aparkatuta egoten dira.
- Jausoron eta Altzibarren aparkaleku falta dagoela diote bertako bizilagunek.
- Kotxea gehiegi erabiltzen dugu eta bizikletaren erabilera indartu behar da.
- Kaleak garbi mantentzeko zakarrontzi txiki gehiago behar dira. Adibidez Aizkibel, Inazio Iriarte eta Ibaiondon.
- Sedentarismoa kaltegarria da gure osasunean.

ISUN SINBOLIKOA MULTA SIMBÓLICA

Kalea / Calle: _____

Eguna / Día: _____ Ordua / Hora: _____

OKER EGIN DUZUNA / FALTA COMETIDA: _____

SORTZEN ARI ZAREN ARAZOA / PROBLEMA QUE OCASIONAS: _____

PORTAERA ONAK AZKOITIAN BUENAS PRÁCTICAS EN AZKOITIA



Bestetik, puntu ezberdinetan jarri gara ibilgailuen kontaketa egiteko: Floreaga auzorako igoeran, Elgoibarrerako bidean, Xabier Munibe kalean eta elizatik Correoserako bidean).

Ondorioak:

- Trafiko handia dago. Goizeko 11:00 izateko auto asko pasa dira, uste baino gehiago.
- Auto gehienetan pertsona bakarra zegoen.

- Batzuk arauak ez dituzte errespetatzean, adibidez, keinukariak.
- Ibilgailuekin sumatutako arazo gehienak Ibaiondo kalean, Plaza Berrin eta ikastetxe inguruetan sortzen dira.





HERRIKO BIZIKLETA BIDEAK

Herriko bidegorriak aztertu dugu, kalean ekintza ezberdinak eginez: bidegorritik ibili eta puntu desberdinetan egoera aztertu (gabeziak, arazoak...), bizikleta aparkalekuen egoeraren behaketa eta txirrindulariei galdeketa.

ATERATAKO HAINBAT ONDORIO

- Bidegorriak mantenu falta du: zuloak, seinaleak falta...
- Bidegorrietan oinezko asko dabil eta horregatik, txirrindulariek askotan errepideetatik joan behar dute. Liburutegi atzea arriskutsua da. Gainera, dauden zatiak ez daude elkarrekin lotuta.
- Floreaga ikastetxera iristeko ez dago bidegorririk. San Martin auzoa eta Altamiratik herriko erdi gunera ez dago bidegorririk, ezta berderik ere.
- Txalon errekatik gasolindegia alderako bidegurutzea bizikletentzako oso arriskutsua da.
- Floreaga ikastetxe inguruan berriz bizikleta aparkatzeko leku gutxi dago.



BATETIK BESTERA

Azkoititik herri eta hiri ezberdinetara joateko moduak aztertu ditugu. Hauek izan dira ateratako ondorio batzuk:

- Azkoitia hainbat herri eta hiriekin ez dago ondo lotuta: Arrasate, Tolosa, Bilbo, Gasteiz... Ikasketa zentroetara iristeko zailtasunak daude.
- Herriko hainbat puntuetan oinezkoentzako arriskua sumatu dugu. Adibidez, Correoseko bidegurutzean kotxeak azkar pasatzen dira eta zebra-bidea gurutzatzerakoan ez da ondo ikusten.
- Leku batzuk gauez oinez ibiltzeko ez dira egokiak argi gutxi dagoelako. Adibidez Ipintzan.



MUNOAUNDI

Badoa pixkana pixkana Munoandiko basoa forma hartzen. Aurten ere txukunketa eta landaketa lanak burutu ditugu.



ESKOLA FOROA

Ikasturtean zehar ikastetxeetan egindako lanketa, Eskola Foroan partekatzen da. Aurtengoan, eko-ordezkariek Elkargunean elkartu gara maiatzaren 15ean. Helburua, gure lanak bata besteari kontatzea eta ondorioak, konpromisoak eta proposamenak bateratzea izan da.



Gure konpromisoekin bi poster sortu ditugu.

2024 - 2025 ikasturtea
Azkoitia

- Oinezko garenean kalea zaindiko dugu, baita dauden seinaleak eta espaloiak errespetatu ere.
- Errepidea zeharkatzerakoan zebra-bidetik pasako gara, bi aldeetara begiratu.
- Kaleak garbi mantentzen saiatuko gara, hondakinak zaborrontzietan ondo sailkatuz.
- Kalean dauden landareak zaindiko ditugu.
- Ahal bada, eskolara oinez, bizikletaz, patinetean edo urbanuen joaten saiatuko gara.
- Bidal motzak egitean eta herri barruan oinez edo bizikletan egingo ditugu.
- Ahal den heinean garraio publikoa erabiltzen saiatuko gara.
- Gurasoak ere autoa partekatzea edota garraio publikoa erabiltzea animatuko ditugu.
- Gurpildun aulkian, haur-kotxeekin edo orgekin doazenei pasatzen utzi eta lekua egingo diegu.
- Inguruko jendeak kalean dauden oztopoekin arazoak dituenen modu autonomoan mugitzeko laguntza eskainiko diegu.

KONPROMISOAK LH

2024 - 2025 ikasturtea
Azkoitia

- Ikastetxera oinez, bizikletaz edo autobusez etortzea.
- Batez ere herri barruan eta ahal denean, oinez, bizikletaz edo urbanoa erabiliz mugitzea.
- Oinez goazenean espaloak erabiltzea.
- Bizikleta gehiago erabiltzea, arauak errespetatuz.
- Bidegorriaren erabilera zuzena egitea, oinezkoekin arretaz ibiliz.
- Errepidea gurutzatzeko zebra-bideak erabiltzea.
- Arriksua dagoen lekuetan kontuz ibiltzea; ikastetxeko aldean behera, Txalon erreka eta gasolindegiko bidegurutzean, Correoaren aurrean dagoen bidegurutzean...
- Garraio publikoa erabiltzea.
- Autobusean zarata gutxiago atera eta gidaria errespetatu, gaueko autobusetan batez ere.

KONPROMISOAK DBH

ESKU-HARTZE PLANAREN DISEINUA

2025-2026 ikasturteari begira, ikastetxeetan esku-hartze plan baten proposamena lantzen ari gara. Hau izango da jardunaren abiapuntua.

- Herriko "puntu beltzak" modu sakonagoan aztertu, bai oinezkoentzat eta baita ibilgailuentzat ere.
- "Eskolara oinez" programa berreskuratu, gutxienez aste batez eta ikusgarritasuna eman.
- Bizikletaren erabilera indartzeko eta arauak errespetatzeko kanpaina egin.
- Mugikortasunari lotuta kontzientziazio kanpaina bat egin herritarrei zuzenduta: jokabide desegoki ohiko eta kaltegarrienak identifikatuz, posterren bidez kalean zehar zabaltzeko, argazki erakusketa bat ikusitako egoera ezberdinak salatzen...

UDALERA ZUZENDURIKO PROPOSAMENAK

Eskola Foroan, Udal ordezkariak luzatu nahi dizkizuegun eskaerak gure artean adostu ditugu bozketaren bidez. Proposamen horiek maiatzaren 29an aurkeztu genituen udaletxean.

SEGURTASUNA

- Hainbat kaletan, espaloitik joatean, arazoak sumatu ditugu, oinezkoen segurtasunean eragin dezaketenak. Hemen horietako batzuk:
 - Zuloak eta koxkak konpondu beharra: Adibidez, Plaza Berrian, Floreagako aldapan, Elkarguneko sarrera zaharraren parean, San Martinen...
 - Espaloi batzuk estuegiak dira. Zabaltzea komeni da. Adibidez Santa Klaran.
 - Garbiketa, oso zikinak daudelako. Toki irristakorretan (San Martinen adibidez) goroldioa garbitu eta oraindik irristakorra izaten jarraituko balu, lurzorua egokitu.
 - Bizilorrera oinez joan ahal izateko espaloia izatea eskolaraino.
 - Espaloietatik jaitsi eta igotzeko maldatxoak jarri gurgildun aulkiekin errazago igarotzeko.
 - San Martin parkera igotzeko dauden eskaileretan heldulekuak jarri.
- Herrian semafororik ez dagoenez, zebra-bideen kokapena berrikusi beharko litzatekeela uste dugu eta zenbait lekuetan gehiago jarri eta egokitu.
 - Izarraitz kaleko igogailuaren parean zebra-bide bat egitea. Zenbait oinezkoek zein desgaitasun fisikoren bat dutenek goiko zebra-bideraino joateko zailtasunak dituztelako.
 - Zebra-bideetan tontortxoak jarri itsuei erraztasuna emateko.
 - Oinezko pasabide horiek ondo margotuta mantendu. Adibidez Trino de Urian.
- Korreoseko bidegurutzean ispiluak, semaforoa... ipintzea. Donostiatik datozen kotxeak ez daitezen hain azkar etorri eta ikuspena hobetzeko.
- Obrak daudenean ongi seinaleztatzea. Zenbaitetan, arazoren bat dutenak pasa ezinean egoten dira.
- Alde zaharra autoentzako itxi eta guztiz oinezkoentzat jarri.
- Gaizki aparkatutako kotxeak isunak jartzea. Kontrol gehiago egotea, batez ere eskoletako sarrera-irteeretan.



BIDEGORRIA

- Bidegorriak egokitu adin txikikoak ere bizikletaz ibiltzeko.
 - Herriko leku askotara iristeko bidegorriak jartzea: Altzibarren moztu egiten da, San Martinen ez dago, Floreagan ere ez... Avia gasolindegia inguruko bidegorria tximinia parean moztzen da.
 - Liburutegi atzeko bidegorrian oinezkoak ibiltzen dira, nahiz eta metro oso gutxira espaloiak eduki. Arriskutsua da baina ez dakigu nola, konpondu beharrekoa da.
- Ikastetxeetarako bizikletaz joateko bidea egokitzea.
 - Bidegorrien mantenua hobetu:
 - Zenbait zatietan zorua ez dago ondo, adibidez Ipintzako zatian
 - Loiolako bidegorrira irteten diren landarak sarriago moztea.
 - Urrategiko bidean ere bai. Jende asko ibiltzen da eta errepidea oztopatzen dute bazterrean landareak hazita daudelako.

BIZIKLETA

- Bizikleta eta patineteentzat aparkaleku gehiago jarri: Elkargunean, Santa Klaran, Aizkibelen, Floreagan, San Martinen...
- Alokatzeko bizikleta elektrikoak. Adibidez Azpeitiko udalarekin proiektu bat adostu daiteke herri batetik bestera joateko.

GARRAIO PUBLIKOA

- Azkoititik inguruko herri/hiri hauetara garraio aukera gehiago izateko edo zabaltzea lotura hobetzeko: Arrasate, Tolosa, Bilbo, Gasteiz... Baita Eibar eta Zumaia aldera ere. Zuzenean Udalaren esku ez badago ere, agian indarra egin daiteke jarri behar duenari eskatuz.
- Urbanoaren ibilbidea eta maiztasuna handitu. Ondo legoke Izarraizko Arginatxo eta inguruko baserrietara iristea.
- Asteburuetan eta festetan gauen garraio publikoa jartzea, Azpeitira batez ere.



Hau izan da ikasturte honetan egindako lanaketa. Datorren ikasturtea gaia sakontzeko eta partaidetza atala martxan jartzeko erabiliko dugu.

Denon artean, herri jasangarri baten alde
jokatu behar dugulako,

**INOR ATZEAN
UTZI GABE!**

